

Erreakzioak

Biharamun esperantzatsua izan du Espainiako Gobernuko presidente Jose Luis Rodríguez Zapaterok eginko adierazpen instituzionalak. Zapateroren iragarpena hausnartzeko 24 ordu hartu eta gero, Euskal Herriko alderdi gehienek balio handia eman diete gobernuturur espainiarraren hitzi.

«Gatazka konpontzeko funtsezko adierazpena» izan da Batasunarentzat, Zapaterok «euskal herritarrek beren etorkizunari buruz erabakitzen dutena errespetatzeko konpromisoa hartu baitu». Beste urrats bat eskatu dio, ordea: «hitzetatik ekintzetara» igarotzea.

EArentzat, «herrialde honetako sentikortasun politikoak bildu ditzakeen hitzarmena» lortzeko izan behar du helburu nagusia.

Atzoko adierazpen politikoarekin Espainiako Gobernuak hasitaz eman du ETArekin elkarrizketa eta alderdien arteko prozesua. Aurrerantzean, gainera, Fernando Grande

Marlaska epailearen esku-hartzerik ez da izango. Dena den, Espainiako Auzitegi Nazionalak jarrai dezake prozesuan esku hartzen. Baltasar Garzon itzuli da: lanerako «gogo handiz» itzuli ere. Lan politiko edo judiziala egingo duen ikusteko denbora apur bat beharko da.

Bezpera beltza izan du Tourrak. Txirindularien tropela gaur abiatuko da, banan banan, aurtengo ekitaldiko lehen kilometroak egitera. Espainiako epaitegietako sumario baten zati bat sekretupetik altxatu zuten herenegun, Tourreko txirindularien artean auzian «zikindutako» inor egon ez zedin. Atzo egin zuten garbiketa «kode etikoa» aplikatuz.

Elite mailako 200 kirolari omen daude zerrenda horretan, laurdena baino ez da publikatu, txirindulariarena. Zergatik filtratu eta gero publikatu dira txirindularien izenak, eta ez denak? Kirolean txirindulariekin egiten ari direna euskal herritarrekin Espainiako Auzitegi Nazionalak egiten duenaren antzekoa da: susmagarriak dira denak eta errudunak, kontraio frogatu arte.



Hitz beste

Anjel Lertxundi

Historia goibelak

Hau da sekula entzun dudana historiariak goibelenak. Hitz ausart horien alardearekin hasten da Ford Madox Ford-en *Historiariak goibelenak* nobela. Ausarta, benetan, bere historiari *goibelenak* deitzen dion nobela bat. Baina, niri dagokidanez, ez da irakurri dudana tristeena. Askoz ere tristeagoa egin zitzaidan, adibidez, Carmen Baroja y Nessi-ren *Recuerdos de una mujer* liburua. Bertan kontatzen dituenen artean, hona giltzatuta geratu zitzaidan eszena bat: emakume talde batek *Lyceum Club Femenino* sortu du eta Carmen da hitzaldiak antolatatzeko arduradun. Carmenek, ordea, ezin du berak antolatutako hitzaldiok entzutera gelditu, etxera itzuli behar baitu senarrari afaria prestatzera.

Rafael Caro Reggio editorearen emaztea zen Carmen. Eta Ricardo eta Pio Barojaren arreba. Eta Julio Caro Barojaren ama. Ez, distira kulturalak ez gaitu injustiziatik libratzen.

HIZPI DEAK

Koldo Aizabe
kaidabe@berria.info

Montxo



Euskaldunen komunitatea berregitea da aukera bakarra

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardeggi, eta Mikel Basabe
Artikuluaren Hizkuntza politikako lan taldeko kideak

Euskaldunak bigarren mailako hiritarrek gara EAEn, hirugarren mailakoak Nafarroan eta mailarik ere ez digute aitortzen Iparraldean. Oraindik ere. Sistema demokratikoetan murgilduta ere. Batetik, Espainiako agintari moderno eta demokratiko askok ez dute praktikan betetzen estatuaren iazera eleanitzaz esaten dutena. Euren konstituzioa ere ez dute betetzen, euskaldunon hizkuntz eskubideei dagokienez, besteak beste. Frantziako ordea, esan ere ez dute ezer esaten, ez sinatzen. *On s'en fout...*

Gainera, Nafarroan UPN boterean egonik, horien neurriko hizkuntz politika jasaitzen dugu nafar euskaldunok ere; mesprextuta eta probokazioa bata bestearen atzetik.

Euskal Autonomi Erkidegoan batez ere, eta Nafarroako eta Iparraldeko udal gutxi batzuetan baino ez da euskararen aldeko hizkuntz politika garatzen ari instituzioetatik, eta azken 25 urteetatik hona baizik ez, eta motela bera ere. Horregatik «dago euskarra», edo hobe esanda, horregatik gaud euskaldunak gauden bezala, gure etxean baztertuta, erdaldunen azpiko.

Joera uniformizatzailea duten espainol eta frantsesei eskatzea alferrik da, horiei errespetua existitu beharko diegu.

Euskaldunen elkarteak, komunitatea berregitea ezinbestekoa da.

Euskaldunei bereziki, baina euskal herritar guztiei oro har, euskal hiztunen aukera-berdintasunaren aldeko jarrera aktiboa areagotzera da egin diegu, baita eguneroko jardueran guztietan euskaraz jarduteko aukera egite- ra, eta beharrezkoa den guztie-

tan, patxadaz baina etenik gabe, gure herrian euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzera, horixe baita hizkuntz politikarik eraginkorra.

Horrekin batera, euskalduneko errespetua erakusteko gauza diren ordezkari espainol eta frantsesei, eta EAeko agintariari (Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarriari, foru aldundiei, batzarr nagusiei eta udalei nahiz horien mendeko erakundeei ere), baita Nafarroako eta Iparraldeko udal-agintariari, dei egin nahi diegu, egun indarrean diren legeek ematen dituzten aukera guztiak erabili dituzten, oraindik ere diskriminazioa jasaten duten euskal hiztunen hizkuntz eskubideak bermatu daitezkeen behingoz.

Erakundeotan herritarrek euskaraz normaltasun osoz egin ahal izango dutela bermatu behar da eperik laburrenena. Hor-taz, lehenik, euskal hiztunok jakin behar dugu erakunde publi-

koetan euskaraz egiteko eskubidea bermatuta dagoela, eta hori jakitera eman behar dute instituzio guztiak. Euskaldunon eskubideak errespetatu eta euskararen erabilera normalizatuko bada, EAeko egungo hizkuntz politikak ere, bultzada sendoa behar du.

Horretarako, honako oinarriak proposatu nahi ditugu:

1. Euskararen erabilera normalizatzeke, hizkuntz politikak zentralitate behar du administrazio publiko guztien jardunean. Administrazio publikoaren egituretan bermatuta izan behar du hizkuntz aukera berdintasunak, eta alor guztietako politikak eta neurriak ezartzean hizkuntz irizpide egokiak aintzat hartuko direla ziurtatu behar da.
2. Herritarrok gure Administrazio publikoetan zerbitzu osoa euskaraz normaltasun osoz jasotzeko eskubidea dugu eta hori jakin behar dugu erakunde publi-

Era berean, euskal hiztunok euskaraz jarduteko aukera-berdintasuna alor pribaturatu hedatzeko baldintzak eratu behar dira.

3. Euskal herritar guztien hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezkeen nahi dugun indar politikokoak eta gizarte eragileek elkarlaneko ildoak adosteko eta euskal hiztunok jasaten dugun diskriminazioari azkena emateko garaia da.

Horretarako, hizkuntz eskubideen egoeraz eta euskararen normalizazio prozesuaz hausnartzeko eta aurrera egiteko proposamen adostuak egiteko mahai antza osatzeko gonbitea luzatu nahi diegu hizkuntz aukera-berdintasunaren alde dauden alderdi eta gizarte eragileei.

Artikuluaren Hizkuntza politikako lan taldeko kide nagusiak dira: Mikel Basabe, Mikel Anjo, Soiz, Aguirre, Alkorta, Iñaki Añel eta, orop, Aguirre.